Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5885

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 4koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena; honen bidez, 2010 ekitaldirako turismo enpresak modernizatzeko laguntza-esleipeneko baliabide ekonomikoak –2010eko ekitaldirakoak– handitu direla jakinarazten da.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko ekainaren 30eko Aginduak turismo-enpresak modernizatzeko laguntza-programa arautu du (2010eko uztailaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

Turismo enpresak modernizatzeko laguntza-esleipenaren deialdi publikoa egiten zuen Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen 2010eko uztailaren 16ko Ebazpenaren 1. artikuluak dioenaren arabera, bertan 2010eko ekitaldian emango diren diru-laguntzetarako ezarri ziren fondoak handitzea bidezkoa da.

Horrenbestez, 2010eko uztailaren 16ko Ebazpenaren 1. artikuluan ezarritakoa ahalmena erabilita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2010eko uztailaren 16ko Ebazpenean 2010eko ekitaldirako aurreikusi diren baliabide ekonomikoak 550.000 eurora arte handitzea, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko bestelako laguntza programetan agortu ez diren aurrekontu zatien arabera. Ebazpen horren bidez argitara eman turismo enpresak modernizatzeko laguntza-esleipenaren deialdi publikoa.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuari zuzenduta, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 4a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

5885

RESOLUCIÓN de 4 de noviembre de 2010, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados a ayudas para la modernización de las empresas turísticas, para el ejercicio 2010.

La Orden de 30 de junio de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio, y Turismo, regula el programa de apoyo a la modernización de las empresas turísticas (BOPV de 14 de julio de 2010).

De conformidad a lo establecido en el artículo 1 de la Resolución de 16 de julio de 2010, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, por la que se publica la convocatoria de concesión de las ayudas reguladas en el programa de apoyo a la modernización de las empresas turísticas, procede realizar el incremento de los fondos destinados a las ayudas que en la misma se establecen para el ejercicio 2010.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la Resolución de 16 de julio de 2010,

RESUELVO:

Primero.– Incrementar hasta un total de 550.000 euros los recursos económicos previstos para el ejercicio 2010, en la Resolución de 16 de julio de 2010, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas a la modernización de las empresas turísticas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2010.

La Viceconsejera de Comercio y Turismo,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.